

## **1. konpromisoaren lan-tailerraren akta. Kontu-ematea agintaldi-planen bidez**

Bilbo – 11.09.2019

Lan-tailerra Eusko Jaurlaritzak Bilboko Kale Nagusiko 85. zenbakian duen egoitzako 1. solairuko B1 aretoan egin da, 2019ko irailaren 11n, 16: 00etatik 17: 30era.

1. Konpromisoan izena emanda dauden 46 pertsonetatik 16 bertaratu dira bilerara:

1. Xuban Zubiria Elexpe
2. Andoni Lastra
3. Laura Vizcaino
4. Paul Gurmendi
5. Joseba Egia
6. Inmaculada de Miguel
7. Maria Aranzazu Otaolea
8. Goizalde Atxutegi
9. Amagoia Ibarrondo Garay
10. Roberto Cañon
11. Luis Petrikorena
12. Jon Olaizola
13. Unai Gogoyana Quesada
14. Leire Andion
15. Montserrat Gutierrez
16. Antxon Gallego

Luis Petrikorenak eman dio hasiera bilerari, eta dokumentua azaltzeari ekin dio, konpromisoko kideei aldez aurretik bidalitakoa proposatutako eredia eta ibilbide-orria eztabaidatzeko.

Gogorarazi du zein den konpromisoaren helburua: euskal erakundeentzat (autonomia-, foru- eta toki-mailetarako) agintaldiko konpromisoei buruzko informazioa argitaratzeko oinarritzko estandar aurreratu bat adostasunez eraikitzea, jarraipen-metodo bat izango duena: jarraipen-txostenak, jarraipen-adierazleei buruzko dataseten argitalpena eta betetze-bistaratzekak, herritarrek ulertzeko modukoak; eta partaidetza-/komunikazio-plan bat, auditoretza sozialaren ikuspegitik.

Horrek aukera emango du kontu-ematea ezartzeko, agintaldi-planen bidez, eta herritarrek haien jarraipena eta ebaluazioa egiteko. Horren helburua da herritarrek gai publikoetan parte-hartze handiagoa izatea.

Honako gai garrantzitsu hauek jorratu dira:

1. Agintaldi-planen erabilera ezberdina
  - Foru-aldundiak eta udal handiak
  - Udal ertainak
  - Udal txikiak
2. Foru-mailan badira udal-kudeaketan laguntzeko zerbitzu teknologikoak.
3. Kontzeptua beste errealitate batzuetara aplikatzeko aukera (plan sektorialak, zeharkako beste plan batzuk, etab.)
4. Oinarritzko eredu bat definitzearen alde egiten du, erakunde bakoitzak, nahi izanez gero, sakondu ahal izan dezan (adibidez, Aurrekontu Estrategikoekin lotuta)

Jarraian, Luis Petrikorenak prozesuaren ikuspegi orokorra azaldu du, irailaren amaierarako eredu baliozkotu eta ondoren udalei aurkezteko. Urrian, udalen atxikimendua bilatuko da, eredu praktikan jartzeko; jarraian, aplikatu, eta lankidetzaz-ikaskuntza egingo da erakunde horietan, 2020ko martxoa baino lehen. Ondoren, gizarte-auditoretzari helduko litzaioke, eredu kontrastatu eta hobetzeko.

Agintaldi-planaren eredu definitu eta onartu ondoren, feedbacka eta herritarren parte-hartzea bultzatuko dira, eta kontu-emateak ezarriko dira, tartekoak eta azkena.

Agintaldi-planak honako elementu hauek jasoko ditu:

- Konpromiso argiak eta behar bezala zehaztuak. Hasieratik kontuak ematera bideratuta
- horizontea=legegintzaldia
- Agintaldiko lehen hilabeteetan prestatzea
- Gobernu Taldea osatzen/sostengatzen duten taldeak hauteskunde-programekin koherenteak izatea.

Agintaldiko tokiko plana osatzen duten ekintzen/konpromisoen HASIERAKO ZEHAZTAPEN FITXARI dagokionez, hiru jarduera-maila ezarri dira:

1. maila - Ezinbestekoa

- Ekintzaren deskribapena, helburuak eta irismena
- Ekintzaren aurrerapen-maila/betetze-maila neurtzeko adierazle nagusia

2. maila - Desiragarria

- Zer ardatz estrategikotan kokatzen den (hedapenaren 1. maila)
- Zer helburu estrategikotan kokatzen den (2. hedapen-maila) (halakorik badago)
- Zer ODSrekin lotzen den
- Aurreikusitako hasiera-data
- Aurreikusitako amaiera-data
- Ekintzaren mugarri garrantzitsuak
- Zer interes-talderi zuzentzen zaion edo egiten dion mesede
- Zer barrutitan edo auzotan izango duen eragina nagusiki
- Zer gai sektorialekin dagoen lotuta
- Aurreikusitako aurrekontua
- Arlo edo unitate arduraduna
- Ekintzaren tamaina/bolumena neurtzeko beste adierazle batzuk
- Ekintzaren eragina neurtzeko beste adierazle batzuk
- Ekintzaren onuradun diren pertsonen eta/edo eragileen gogobetetasuna neurtzeko beste adierazle batzuk

### 3. maila – Aldez aurretik ibilbide handia duten entitateentzat

- Inplikaturiko beste udal-arlo edo -unitate batzuk
- Inplikaturiko beste eragile batzuk (instituzionalak, sozialak, etab.)

Agintaldi-planeko EKINTZEN EZAUGARRIAK ZEHAZTEKO balioko luketen GAI SEKTORIALEI dagokienez, hona hemen orain arte egindako ekarpenak:

- Irisgarritasuna
- Gizarte-ekintza
- Herritarrentzako arreta
- Zientzia eta Teknologia
- Tokiko merkataritza
- Kontsumoa
- Bizikidetza
- Garapenerako lankidetzak
- Kultura eta aisia
- Kirolak
- Giza eskubideak
- Garapen ekonomikoa
- Dibertsitate funtzionala
- Hezkuntza

- Enplegua eta talentua
- Eremu publikoa
- Euskara
- Familia
- Jaiak
- Fiskalitatea
- Kudeaketa aurreratua
- Berdintasuna
- Industria
- Haurrak eta adingabeak
- Gazteak
- Ingurumena
- Obrak eta azpiegiturak
- Herritarren parte-hartzea eta gobernu irekia
- Edadetuak
- Hiri-plangintza
- Hiri-birgaitzea eta -berroneratzea
- Osasuna
- Lehen sektorea/landa-garapena
- Segurtasuna eta bizikidetzak
- Oinarrizko zerbitzuak
- Trafikoa eta mugikortasuna
- Turismoa
- Balioak
- Etxebizitza

Tokiko agintaldi-plana osatzen duten ekintzen/konpromisoen JARRAIPEN/EBALUAZIO FITXAK ere hiru jarduera-maila aurreikusten ditu:

1. maila - Ezinbestekoa

- Garatutako jarduera nagusiak
- Ekintzaren egoera (egoera posibleak dituen eskala bat)

2. maila - Desiragarria

- Aurrerapen kuantitatiboaren gradua, hasierako helburuarekiko
- Definitutako adierazleen neurketa

3. maila - Aldez aurretik ibilbide handia duten entitateentzat

- Gertatu den aurrerapena frogatzen duten ebidentziak (irudiak, bideoak, dokumentuak, etab.)
- Genero-ikuspegiari buruzko azalpena, proiektuari dagokionez
- Adin-ikuspegiari buruzko azalpena, proiektuari dagokionez
- Proiektuan erabilitako partaidetza-tresnak

- Zer beste udal-estrategiekin edo -planekin dagoen lotuta

KONTU-EMATEKO PROZESUETAN, ZER AGENTE-TIPOLOGIAREKIN IZAN BEHARKO LITZATEKEEN ETENGABEKO HARREMANA/LANKIDETZA, proiektu/konpromisoen xede direlako, edo herritarren aurrean preskriptore/hedatzaile gisa jardun dezaketelako. Horri dagokionez, hauek dira beharrezkotzat jotzen diren hiru mailak:

1. maila - Ezinbestekoa

- Auzo-elkarteak
- Elkarte sektorialak (merkatarienak, enpresenak, adinekoenak, emakumeenak, gazteenak, etab.)

2. maila - Desiragarria

- Ikastetxeak, prestakuntza-zentroak eta beste ezagutza-eragile batzuk
- Trakzio-enpresak

3. maila - Aldez aurretik ibilbide handia duten entitateentzat

- Udal langileen ordezkariak
- Sindikatuak

Honako EUSKARRI/KANAL HAUEN BIDEZ EMAN AHAL IZANGO DIRA KONTUAK tokiko agintaldi-plan baten hiru garapen-mailatan:

1. maila - Ezinbestekoa

- Udalaren webgunea, garatutako ekintzei buruzko informazioarekin

2. maila - Desiragarria

- Idatzizko txostenak, ekintza bakoitzaren aurrerapen-/betetze-mailari eta udalerrriaren garapenean duen eraginari buruzko fitxekin.
- Hedabide propioak (udal-aldizkaria)
- Sare sozialak
- Barruti/auzo-kontseiluak
- Sektoreko kontseiluak/foroak (Ingurumen Kontseilua, Berdintasun Batzordea ...)
- Udal kontseilu zibikoa
- Kontu-ematearen aurrez aurreko topaketak, interesdun orori irekiak

- Kontu-ematearen aurrez aurreko topaketak, herritarren paneletara mugatuak, lagin estatistiko adierazgarri batean oinarrituta eraikiak

### 3. maila - Aldez aurretik ibilbide handia duten entitateentzat

- App espezifikoak
- Postontzietan, etxebizitzetan
- Erakusketa fisikoak (panelak, karpak ...)
- Informaziorako e-mailak, interesdunak harpidetzeko

Azkenik, Luis Petrikorenak udalak animatu nahi ditu, batez ere dimentsio txikikoak, proiektuan sar daitezen, eta bertaratutakoei planteatu die nola garatu litekeen Gizarte Auditoretza modu erraz, eraginkor eta efizientean. Eta hainbat ideia proposatzen ditu, hala nola herritarrekin focus group bat antolatzea, hainbat eredu aurkezteko edo haien feedbacka eta hobetzeko proposamenak jasotzeko.

Konpromiso Taldearekin hurrengo urratsak egiteko, honako hau proposatu du Luis Petrikorenak:

1. Udalen aurrerapenei buruzko informazio jarraitua (atxikitzea + eredia aplikatzea).  
Monitorizazio-adierazleak:
  - Proiektu pilotuari atxikitako udalen kopurua
  - Aginte-planak egin eta argitaratzen dituzten udalen kopurua
  - Planen ezaugarriak
  - Planen hasierako komunikazioko euskarriak/kanalak ezaugarritzea
  - Kontu-emateko aurreikusitako euskarrien/kanalen ezaugarriak
2. Gizarte Auditoretza prestatzea

Jarraian, bertaratutakoek parte hartu dute beren hausnarketa eta iritzien berri emateko. Horien artean, zerbitzu-kartekin lotutako ekarpen bat nabarmendu behar da, kontuak ematearekin zerikusia duen gai bat, nahiz eta agintaldi-planekin bereziki lotuta ez egon. Konpromisoaren hurrengo bileran gai horri buruzko hausnarketa egitea proposatu da.